

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure inguruko elkarteak ezinbestekoak izango dira gure proiektuan, beraiei esker gure proiektua aurrera eraman al izango dugulako. Egitasmoan hainbat jarduera egin behar dira denak ondo funtziona dezan eta eginkizun hauek guztiak “Fosforitoak” gure kabuz egiteko ezinezkoak direnez, beste enpresa edota erakundeen laguntzaz baliatuko gara.

Alde batetik, behar den jendea erakartzeko ekologisten laguntzaz abiatuko gara. Ekologistei gure informazioa eta egitasmoaren ezaugarriak argi eta garbi azalduko dizkiegu, gure konpromezua azalduz eta pauso oro adieraziz. Hauek hainbat erakunderekin izango dute kontaktua, beraz, gure egitasmoa hauetan zehar



zabalduz gero, hainbat pertsona gureganatuko ditugu haiei esker eta gure proiektua martxan jartzeko hasiera ezinhobea suertatuko litzaiguke. Duela aste batzuk, “ekologistak martxan” taldearekin jarri ginen kontaktuan, hauen informazioa irakurri genuen unetik ideia bikaina iruditu baitzitzaigun gure egitasmoa haiengana zabaltzea, eta espero genuen moduan, izugarritzko poza hartu zuten gure ideia azaltzean. Horregatik, talde gehiagotara zabaldu nahi genuke, “Eguzki” taldeari, “Itsas Enara Ornitologia Elkarte”ri, “Haritzalde Naturzaleen Elkarte”ri besteak beste, harrera ona izango dugula uste dugulako eta horrela egitasmoaren partaidetza oso zabala izango delako.

Horrez gain, Donostiako Udalarekin kontaktuan jarriko gara adostasun batera iristeko. Gure egitasmoa zein den azaldu ondoren, parte hartzen dutenek, ingurunearen garbiketan laguntzen dutela eta horren harira ingurumenarekiko kontzientzia dutela adieraziko diegu. Hori dela eta, gure erabiltzaileen “sari” egokiena, hondakinen tasak ez ordaintzea dela uste dugu. Beraz, hau udalarekin adostu beharko genuke. Beste alde batetik, hondartza bakoitzean hondakin ontziak jartzeko baimenak eskatuko diegu, egitasmoan aurrera egin ahal izateko.

Gainera, bildutako hondakinak non gordetzeko eta hauekin zer egiteko San Marco zabor mankomunitatearekin kontaktatzea erabaki dugu. Lehenik, Donostiako hondartzen garbiketan bildutakoa gordetzeko, hondartza bakoitzean hondakin ontzi bana jarri beharko dugu, beraz baimena esan bezala Udalari eskatuko diegu. Ondoren astero jasotako hondakinak birziklatzera eramateko, San Marco-koei eskatuko diegu garraioaz arduratzeko. Aldi berean, birziklatzeko prozesuan hauen laguntzaz baliatuko gara, hau da, hondakinak garraiatzeaz gain, posible izango balitz, hauen birziklaketaz arduratuko lirateke mankomunitateko kideak.



Ostera, gure egitasmoa publiko zabalarengana irits dadin, komunikabide fisiko ugari erabiliko ditugu, hala nola kartelak. Horretarako, Donostiako publizitate enpresa batekin harremanetan jartzeko asmoa dugu: Maddon hain zuzen ere; egitasmo honetako ekintzaileetako baten aitak, publizitate enpresa honetan lan egiten du, eta erabateko konfiantza emateaz gain, erraztasun handiak edukiko genituelako haiekin harremanetan jartzerako orduan gure zereginak errezago gauzatzeko. Talde honek mota askotako publizitatea egitea eskeintzen digu. Horrez gain, publizitate-maila zabalagoa izan dezagun, Teledonostirekin adostasunera iritsi gara, izan ere, eskualdeko jende askok ikusten duen telesaila da, iragarki batzuk igortzen uztea aproposa irudituko litzaiguke. Sare-sozialetan ere gure kontua edukiko ditugu, **@hondargarbi** izenekoa, eta bertatik informazio guztia eguneratuko dugu, gaur egun sare sozialak komunikatzeko oso baliagarriak baitira, eta bertatik jende ugari ikusi ahal izango ditugu zabaltzen ditugun berriak eta albisteak une oro.

Amaitzeko, baliabide fisikoak eskuratzeko, hau da, eskularruak eskuratu ahal izateko, "Guantenor" enpresarekin jarriko gara kontaktuan, haien irizpideak irakurri eta gero, erabateko konfidantza eman digutelako eta horrela egitasmorako beharrezkoak diren eskularru guztiak lortuko ditugu.



Elkarte guzti hauekin bat eginez gero, denak hobe funtzionatzeko aukera izango du, aldi berean proiektua ikuslego handiago batera zabalduko da eta gure helburua betetzea erraztuko duten hainbat faktore izango ditugu. Beraz, ezinbestekoa da elkarrekin eratzeko.